



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ana Madariagaren adierazpenak, Gernikako bonbaketearen 75. urteurrenaren oroitzarrear

“Gernikako Batzarretxeak eta Aretxak, ikur moduan — gaur inoiz baino gehiago ganera— bildu egiten dabe guztiontzako etorkizun askea eta baketsua lortzeko nahia”.

Gernika, 2012ko apirilak 26. ETB 2ko “Egunon Euskadi” informatiboan, Gernikako bonbaketearen 75. urteurrenaren oroitzarrea dala-ta egin deusien alkarrizketan, Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari andreak adierazo dau “Gernikako Batzarretxeak eta Aretxak ikur moduan — gaur inoiz baino gehiago ganera— bildu egiten dabela guztiontzako etorkizun askea eta baketsua lortzeko nahia”.

Ana Madariaga gaurko egun guztia anfitrioi lanak egiten ibiliko da Gernikako Batzarretxean, hain zuzen be Condor Leginoaren bonbaketetatik salbu geratu ziran eraikin bakarrenetariko baten. Madariaga Lehendakari andreak adierazo dau Gernika “ikur bizia” dala eta Batzarretxea eta Gernika bera ikusten datoza bisitariak “iraganean benetan zer gertatu zan jakin gurean etorten dirala, baina baita etorkizunari itxaropenez begiratzeko gogoagaz be.”

Ekimenak eta aurrera joiazala, eta “euskal askatasunen eta bakearen ikurra”, Gernikako Aretxa lekuko ebala, Ana Madariagak gomutapen berezia izan dau George Steerenganako, berak “jakin ebalako munduaren aurrean plazaratzen zer gertatu zan Gernikan, faxisten guzurrei aurre eginetz”. Gertatu zana egin zituan lehen kronika eta albisteez agirian itxi eben “geroago European gertatuko zana”. Bere erreportajeei esker jakin ahal izan eban munduak Gernikan 75 urte dirala jazotako izugarrikeria.

Batzar Nagusietako Lehendakariak itxaropenerako mezuagaz amaitu dau alkarrizketea: joandako astean Gernikako azokan emon eben “Zerutik sua dator” izeneko dokumentala gogoratu eta berba-jokoa egin dau esanez “zerutik sua dator, baina Gernikatik bakea dator”.

Alkarrizketearen ostean, Batzar Nagusietako Lehendakariak, bonbaketearen 75. urteurrenaren oroitzarren ekitaldiak dirala-ta, gogotara ekarri gura izan dau “oraindino be beharrezkoa dala oroitzapena berreskuratzeko balio dagien ekimenak bultzatzea. Lehenengo bonbak, izua eta heriotza etorri ziran. 1937ko udabarri negargarri haren ostean, guzurrak etorri ziran Gernikaren ganera, su hiltzaile haren errudunak ostondugurean”. Gernikaren, Durangoren eta Bizkaian bonbakatu ebezan hainbat herriren ganean “isiltasun trinkoa eta itogarria jausi zan urte askotan”. 75 urte igaro diran arren, oraindino be “beharrezkoak dira egia gaurko belaunaldiengana hurreratuko daben



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ekimenak egitea, bake-zaletasuna zabaltzeko ekimenak, indarkeria suntsitzaile eta antzuaren aurrean” esan dau Ana Madariagak.

Madariagak gogotara ekarri dau Euskadik gaur bizi dauen abagune politikoa, eta esan dau “gaurkoaren moduko egunek bakea bultzatzeko be balio dagiela”... “gure Herria sasoi barrien argitasuna ikusten hasi da: indarkeriarik bako sasoiak, atentaturik bakoak, ideien jazarpenik bakoak. Bake-bidean aurrera egiteko, eta izuak sekula be ez dagizan gure familiak apurtu eta banandu, derrigorrezkoa da gure iragana ondo ezagutzea.”



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Declaraciones de Ana Madariaga en el 75 aniversario del bombardeo de Gernika

“La Casa de Juntas y el Arbol de Gernika hoy significan más que nunca el anhelo de construir entre todos un futuro compartido, libre y en paz”

Gernika, a 26 de abril de 2012. En una entrevista concedida al informativo matinal “Egunon Euskadi” de ETB 2, la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, ha declarado esta mañana, en el aniversario del bombardeo de Gernika, que la Casa de Juntas y el Árbol “hoy significan más que nunca el anhelo de construir entre todos un futuro compartido, libre y en paz”.

Madariaga, que ha ejercido durante todo el día de hoy de anfitriona en uno de los pocos edificios de la villa que se salvó de los bombardeos de la Legión Condor, ha manifestado que Gernika es un “símbolo vivo”. Los que visitan la Casa de Juntas y por extensión la villa foral, “vienen a echar la vista atrás a lo que sucedió en el pasado con el objetivo de saber realmente lo que pasó, pero también con la pretensión de mirar con esperanza hacia el futuro”.

Entre estas iniciativas y junto al árbol de Gernika, “el símbolo de las libertades vascas y de la paz”, Ana Madariaga ha tenido un recuerdo especial para el periodista George Steer que “supo transmitir al mundo lo que había ocurrido en Gernika frente a las mentiras de los fascistas”. Sus primeras crónicas y verdades sobre lo que sucedió “fueron un preludio de lo que luego iba a acontecer en Europa”. Sus reportajes dieron a conocer al mundo el bombardeo perpetrado hace 75 años sobre esta villa.

La Presidenta de las Juntas Generales ha concluido la entrevista lanzando un mensaje de esperanza: “el fuego viene del cielo pero de Gernika viene la paz”, en alusión al documental “Zerutik sua dator” que la semana pasada se proyectó en la plaza del mercado del Gernika.

Tras la entrevista, la Presidenta de las Juntas Generales, en relación a los actos organizados por el 75 aniversario del bombardeo, ha querido recordar que “todavía hoy es necesario impulsar iniciativas que ayuden a reconstruir la memoria. Primero fueron las bombas, el terror y la muerte. Después, a partir de aquella lejana primavera de 1937, sobre Gernika cayeron las mentiras. Trataron de falsear la autoría de aquel fuego destructor”. Sobre Gernika, Durango y las decenas de pueblos vizcaínos bombardeados por la aviación fascista “se instaló durante décadas un tupido y asfixiante silencio”. Han transcurrido 75 años y según Madariaga “son necesarias iniciativas que acerquen la verdad a las actuales generaciones, proyectos que difundan el pacifismo frente a la aniquiladora y estéril violencia”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Madariaga ha querido recordar también el momento político que vive Euskadi y que días como hoy “sirvan también para impulsar la paz”. “Se abren para nuestro pueblo las puertas de una nueva época sin violencia, sin atentados, sin persecuciones por las ideas. Para avanzar en la paz y para que nunca más el miedo separe y rompa a nuestras familias es bueno conocer bien nuestro pasado” ha manifestado.